



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Arriaga Antzokiak Alessandro Scarlattiren *Cain, overo il primo omicidio* oratorio hunkigarri eta bikaina ekoitzi du eta oholtzaratuko du

- Tatjana Gurbaça zuzendari alemaniar prestigiotsua arduratzen da ikuskizunaren eszena-zuzendaritzaz, zeina apirilaren 15ean, larunbatean, ikusi ahal izango baitugu, 19:00etan.
- Carlos Mena kontratenorra da zuzendari musikala, eta sei abeslari bakarlarietako bat, Josu Cabrero, Sonia de Munck, Christian Borrelli, Lucía Caihuela eta Ferran Albrichekin batera.
- Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) egiten du Scarlattiren maisulan honen interpretazio instrumentala, gure kulturaren lehen fratrizidiorako bidai bat dena, Kainek Abelen aurka egindako fratrizidioaren historia biblikorakoa.
- Proposamen eszenikoan, halaber, Ane Guisasola eta Ainhoa Artetxe emakumezko aktoreek eta Gaizka Chamizo gizonezko aktoreak parte hartuko dute, Jainkoaren eta Luziferren pertsonaien ahotsik gabeko aktore-erreplikak eskainiz.

**Bilbo, 2023ko apirilaren 4a.** – Arriaga Antzokia ilusio handiz ari da ekoizpen propio berri honen aurkezpena prestatzen, zeina apirilaren 15ean izango baita, larunbatean, 19:00etan. Proiektu liriko eta eszeniko oso berezia da, eta **Alessandro Scarlattiren** konposizio handienetako bat eramaten du oholtzara: ***Cain, overo il primo omicidio***. Oratorio hau maisulana da, perfekzio estruktural eta estilistiko handiko konposizioa. Izan ere, esan daiteke erabateko opera bat dela, ofizialki horrela sailkatuta ez dagoen arren. *Cain, overo il primo omicidio* azpimarratzekoa da egile italiarraren ahots-ekoizpen harrigarriaren artean, zeinak 600 kantata, 120 opera eta 40 oratorio inguru konposatu baitzituen.

Orain, Arriaga Antzokiak obra musikal bikain hura aurkezten die ikusleei, kalitate handieneko elementuak dituen ikuskizun baten bidez. Hala dela berretsi du muntaia zuzentzen duen “bikoteak”. Izan ere, Arriaga Antzokiaren ekoizpen propio honetan, **Carlos Mena** kontratenor prestigiotsua, nazioarteko aintzatespena duena, arduratu da musika-zuzendaritzaz eta **Tatjana Gurbaça**, berriz, eszena-zuzendaritzaz. Alemaniarrak puntako zuzendarietako bat da nazioartean, eta mundu osoan egiten du lan. State Theatre Mainz-eko opera-zuzendaria izan zen.

Scarlattiren musikaren interpretazioa sei bakarlari bikainek eta **Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS)** egingo dute, eta horiei bi emakumezko aktoreen eta gizonezko aktore baten ekarpena gehitu behar zaie, lankidetzaz berezi gisa.

**Carlos Menak** berak, ikuskizunaren zuzendaritza musikalaz arduratzeaz gain, Jainkoaren rola (Voce di Dio) interpretatuko du, beraz, *Cain, overo il primo omicidio* honetan bere ahotsak batuko dituzten sei abeslarietako bat izango da. Beste bostak ere bakarlari bikainak dira eta, gazteak izan arren, ibilbide oso egonkortua dute. **Josu Cabrerok** jarriko dio ahotsa Adami eta **Sonia de Munck** arduratuko da Evarenaz; **Christian Borrelli** Kain izango da, eta **Lucía Caihuela** Abel. Amaitzeko, **Ferran Albrich** izango da Luziferren ahotsa (Voce di Lucifero).

Horrez gain, Jainkoak eta Luziferrek bere aktore-erreplikak izango dituzte. Emakumezko bi aktorek antzeztuko dute Jainkoa, ikuspegi bikoitz batean: batetik, **Ane Guisasolarena** (Jainkoa ama) eta, bestetik, **Ainhoa Artetxerena** (Jainkoa alabaren bertsioan erakutsiz). Luziferren rola, berriz, **Gaizka Chamizoren** aktore-erantzuna izango du. Hiru antzeppen horiek gorputzaren eta adierazpenaren bidez soilik garatuko dira, Carlos Menaren (Jainkoa) eta Ferran Albrichen (Luzifer) emanaldietan izango dituztelako beren alter ego ahostunak.

### **Lehen homizidioa**

Arriaga Antzokiaren produkzio berri honek Alessandro Scarlatti Napoliko jenioaren arteaz gozatzeko aukera ederra eskainiko digu. Gizakiaren lehenengo ekintza kriminalaren traman murgilduko gaitu, paradisuako giro idilikoa eta berezko giza sentimenduen borroka sakonean. Scarlattik askotariko karaktereen eta afektuen paleta inprimatzen du musikalki pertsonaia bakoitzean, eta, horien bidez, diskurtso dramatiko gure kulturaren lehen fratrizidiorako bidaia handi bihurtzen da, Kainek Abelen aurka egindako fratrizidioaren istorio biblikorakoa, alegia.

Bere kontakizuna sexuz, krimenez, dramaz eta umorez beteta dago. Jainkoa eta deabrua agertzen dira eta borroka egiten dute giza arima eramateko. Lanak oreka barroko liluragarria du, lau "giza" pertsonaien (Eva, Adam, Kain, Abel) kontzeptuak bi jainkoren tentsioak jasotzen ditu, bata gorenetik -"Voce di Dio"-, eta bestea sakonetik -"Voce di Lucifero"-. Emozioak eta grinak kolorez eta xehetasunez betetako musikaz islatzen dira arietan, sukarraldien antzera.

Oratorio honetan daude mitoari egin diezazkiokegun oinarrizko galdera guztiak: Nola iristen da gaizkia mundura? Jainkoak zergatik jartzen dizkie probak gizakiei? Nola aurkitu bide zuzena? Gure zoriona fedearen mende jarri behar al dugu? Prozesuan, Kain gizaki alderraiaren ikur bihurtuko da, zalantza egiten duen eta bila dabilen gizakiaren ikur, baina, beste alde batetik, ezagutzaren jabe ere bada, eta maitatzeko eta desiratzeko gehiegizko ahalmen horrekin, gizakiaren beraren ikur ere izango da. Harekin batera konturatuko gara gure barnean bilatu behar dugula beti jainkotiarra dena eskatzen dugunean.

### **Obrari buruzko zertzelada batzuk**

Barrokoko musikagileek biziki miretsi zuten Alessandro Scarlatti; ahots-musikako konpositore handizat zuten, maisutzat, paregabea baitzen poesiaren inflexioak musikaren bidez adierazten. Bere ahots-ekoizpen harrigarriaren artean (600 kantata inguru, 120 bat opera eta 40 oratorio, gutxi gorabehera), azpimarratzekoa da *Cain, overo Il primo omicidio*. 1707an idatzi zuen Kontrarreformako obra gisa, urte horretan Erromak guztiz debekatuak baitzituen antzeppen eszenikoak, aita santuaren dekretuz, baina *Il primo omicidio* behar bezalako opera bat da. Venezian estreinatu zen, 1707an.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 21 eta 45 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# ***Cain, overo il primo omicidio***

Konpositorea: **Alessandro Scarlatti**.  
Libretoa: **Pietro Ottoboni**.  
Zuzendaritza musikala: **Carlos Mena**.  
Eszena-zuzendaritza: **Tatjana Gürbaça**.

## **Ahotsak.**

Adam: **Josu Cabrero**.  
Eva: **Sonia de Munck**.  
Jainkoa: **Carlos Mena**.  
Kain: **Christian Borrelli**.  
Abel: **Lucía Caihuela**.  
Luzifer: **Ferran Albrich**.

## **Antzezleak.**

Jainkoa (Ama): **Ane Guisasola**.  
Jainkoa (Alaba): **Ainhoa Artetxe**.  
Luzifer: **Gaizka Chamizo**.

Orkestra: **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)**.

Argiztapena: **Stefan Bolliger**.  
Eszenografia: **Stefan Heyne**.  
Jantzien diseinua: **Silke Willrett**.  
Produkzioa: **Teatro Arriaga**.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)